

Inperatibo kategorikoa

Obraren helburu nagusia inperatibo kategorikoa, hots, moralitatearen printzipio nagusia argitzea da. Moraltasunaren atzean dagoen legea da inperatibo kategorikoa. Bat eta bakarra da nahiz eta aplikazio desberdinak dituen, formulazio bakoitzak lege moralaren alderdi bat nabarmendu nahi du.

Inperatibo kategorikoa mugagabeki ona zer den zehazteko irizpidea da. Forma hau hartuko luke: egin x beti, edozein delarik egoera ere, x hori ona bada edozein egoeratan. Baldintza gabe edo nahitaez agintzen du inperatibo kategorikoak. Lege bat lege morala izan dadin sintetikoa eta a priori izan behar da eta, beraz, moralitasunaren inperatiboa soilik kategorikoa da, inperatibo hipotetikoa sintetikoa eta a posteriori baita. Apriorizkoa denez, enpirikotasunetik at kokatzen da, ezin da a posteriori funtsatu.

Arrazoimen praktiko hutsaren legea da, bere kausalitate forma bat-batekoa izanik, hau da, arrazoimen praktiko hutsak modu bat-batekoan sortzen ditu inperatibo kategorikoaren aginduak. Inperatibo kategorikoa autonomia edo autodeterminazioa da, hau da, izaki arrazional batek bere buruari ematen dion lege praktiko eta objektiboa, izan ere, inperatibo kategorikoak zentzua du soilik baldin eta arrazoimen hutsa bezalako errealitatea existitzen bada. Horregatik, lege hau ez da arrotza, norberak bere buruari ematen diona baizik. Borondate hutsa, inperatibo kategorikoaren izate baldintza da, mugagabeki ona den gauza bakarra izanik; kanpo hertsaduratik aske ekiteko printzipioa da, norberak norbere buruari printzipioa emanez.

Esperientziatik ezin ditugu beharrezkoak eta izaki arrazional ororentzako onak diren ekintzak ondorioztatu. Hala ere, kontu enpirikoak aintzat hartuko ditu Kantek, izan ere, gizakiak natura eta moralitatearen artean kokatzen gara, hau da, mundu fenomeniko eta askatasunaren edo autonomiaren artean. Horrela, aihurrek mugitzen gaituztela ukaezina da, areago, baldintzatutako zerbait da, guk aukeratu ezin duguna.

Hiru hauek dira inperatibo kategorikoaren baldintzak: unibertsaltasuna, gizakiartasuna eta beharrezkotasuna. Bere aplikazioaren esparrua unibertsala delako duintasunez tratatu behar da gizaki oro, eta izaki arrazional orok du lege horren arabera jokatzeko betebeharra edo ardura. Beraz, inperatibo kategorikoak agintzen duena bete behar da, ekintza oro baitago inperatibo kategorikoaren legearen menpe eta gizakiok lege horrekiko errespetua sentitzen dugu.